I *2020ko abendua* I

Leartibai Garapen Agentziak **15 lan-eskaintza** kaleratu ditu eskualdeko proiektu ezberdinak aurrera eraman ahal izateko. Kontratazio horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2020ko ekainaren 30ean kaleratu zuen ebazpen honen baitan kokatzen dira:
*«Ebazpena 2020ko ekainaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, argitara ematen da enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2020ko dirulaguntzen programa»*
.

8 lan-eskaintza eskualdeko bidezidorrak eta herrien eremuen edertze eta mantentze-lanetarako izan dira. Elkarrizketak abenduaren 9an eta 10ean egin dira, eta erantzunak abenduaren 22rako emango dira; beraz, kontratazioak urte amaierarako egingo dira.

Beste 7 lan-eskaintzek teknikari profila dute eta abenduaren 14an egin dira azken elkarrizketak.

Lan eskaintzen ezaugarriak:

**Lanen koordinatzailea**: bidezidorren eta herrietako mantentze-lanetan ari direnen koordinazioa izango da bere betebeharra. Udalekin adostuko dira egin beharreko lanak.

**Laneratze teknikaria**: bi lanpostu izango dira. Enpleguko lan-ibilbideak prestatu eta burutzea izango da beraien lana, dirulaguntzen azterketa eta ebazpen proposamenekin batera.

**Elikadurako teknikaria**: Hamen Bertokoa proiektuaren dinamizazioa, sentsibilizazioa eta komunikazioa izango dira bere egitekoak.

**Ekintzailetza teknikaria**: enpresa berrien sorreran laguntzea izango da bere egitekoa. Bideragarritasun azterketak, dirulaguntza eskariak, tramitazioak eta justifikazioak egingo ditu, baita kultura ekintzailea sustatu ere.

**Turismo teknikaria**: turismoko sustapen eta marketin digitalerako plangintza prestatu eta burutzeaz gain, turismoko web orria eguneratu eta hobetzea ere bere betebeharren artean egongo da. Turismo-sektorearekin harremanetan egongo da.

**Lehen sektoreko haztegiaren proiektua**: eskualdean lehen sektorera bideratuko den haztegia martxan jarri, dinamizatu eta bertan kokatzeko ekintzaileak bilatzea izango dira egin beharreko lanak.

Lanpostu guztiek 6 hilabeteko iraupena dute, lanaldi osokoak dira eta kontratu guztiak hilaren amaieran hasiko dira.